Euskal AEko biztanleak

Irakurri arreta handiz taulan ageri diren datuak, Euskal AEko biztanle kopuruak 2000 eta 2006 urteen artean izan duen bilakaera adierazten dutelako.

	Euskal AE		
	Guztira	**Gizonak**	**Emakumeak**
2006	2.129.339	1.039.934	1.089.405
2004	2.124.846	1.040.525	1.084.321
2003	2.120.384	1.036.715	1.083.669
2002	2.116.240	1.034.703	1.081.537
2001	2.111.078	1.032.231	1.078.847
2000	2.079.210	1.015.970	1.063.240

Esan ondorengo baieztapenak zuzenak edo okerrak diren:

- 2000 eta 2006 urteen artean Euskal AEko biztanle kopurua gehitu egin da.
  EGIA ❑ GEZURRA ❑
- Euskal AEko biztanle kopurua 2004 eta 2006 urteen artean 2000 eta 2002 urteen artean baino gehiago gehitu da.
  EGIA ❑ GEZURRA ❑
- Urte guztietan gizonak gehiago izan dira emakumeak baino.
  EGIA ❑ GEZURRA ❑
- 2000 eta 2006 urteen artean emakumeen kopurua gizonena baino gehiago gehitu da.
  EGIA ❑ GEZURRA ❑
- Aipatutako urteetako batean ere ez da izan gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa.
  EGIA ❑ GEZURRA ❑
- 2000 eta 2006 urteen artean Euskal AEko biztanle kopurua 200 mila pertsonatik gora gehitu da.
  EGIA ❑ GEZURRA ❑

Bete hurrengo taula; horretarako hartu kalkulagailua edo kalkulu-orri bat. Biztanle kopurua gehitu edo murriztu egin dela esateko, urte batetik bestera dagoen aldea hartu behar da kontuan.

	Euskal AE	
	Guztira	**Biztanle kopurua gehitu (+) / murriztu (-)**
2006	2.129.339	_____
2004	2.124.846	_____
2003	2.120.384	_____
2002	2.116.240	_____
2001	2.111.078	
2000	2.079.210	31.868

- Urte horietako guztietako zein alditan gehitu da gehien biztanle kopurua?
  .....
  .....
  .....
- Urte horietako guztietako zein alditan gehitu da gutxien biztanle kopurua?
  .....
  .....
  .....
- Aldiren batean biztanle kopurua murriztu egin da?
  .....
  .....
  .....

Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA